

# D E B A



# AURTEN AURTENGOA

Betikoa da, urteko jaiak aitzaki dirala, *egun jakin baten erririk geienak* izparringietan orri bat edo beste berentzat izatea.

Izki aundi apañez erriaren izena, argazki oroigarriak, aiztute ditugun edo beñere jakin ez ditugun antziñako edesti, asele, edo abitz jakingarriak; erriko seme edo alaba ospatsu, jakitun edo aundizkiren baten berriak, *baita gaur-gaurko diren* erri bakoitzeko gertakariak, beti zerbait onelakoz ornitu oi da erriko jaietarako antolatzen izparringiko orrialdea. Eta beti atsegin oi zaigu erri bakoitzeko jakingarrien jakitun egin al izatea.

Nere erriak ere «sanrroketan» urteoro bezela «ZERUKO ARGIA'n» bere *orri berezia izango duala-ta, orri* ortarako zerbait idaztea eskatu diate. Eta jakiña, egin-bear au bere al izateko, nere burutik alde eginda dagon zerbait, ostera ere bertara erakarri bearrean naiz. Unetxo bat... gaur-gaurko dan zerbait datorkit...

Beste urtetan bezela, edo geiago ere bai, millaka ta millaka kanpotar *eltzen da gure* itxasbaster atsegin ontara, batzuk udaldi osoa igarotzera, besteak aldi beterako eta inguruko errietatik juan-etorrian, batez ere igande ta jai egunetan, notintaz ikaragarriak inguratzen zaizkigu. Eta amaikak aurten, arrituta esan du: «Baña zein polita lenaz gañera jarri duten Deba!».

*Izan ere ba-du gure* alkate jaunak erriaren alde alegintzeko gogoa! Alkate jaunak eta bere lagun diran ziñegotzi edo konzejalak. Bakoitzari berea eman bear zaio. Justizi edo zuzentzak eskatzen duana da au.

Gazteak izan nunbait gure Erriko-etxean zuzendari diran gizonak. Gazteak, lan egiteko gogoz eta ekiñaz; argiak, esku-artean dutena nola erabilli dakitenak; eta erri maiteak. Maitasunak, maite danaren alde in*dar aundia oi du, ta auxe da gure* alkate jauna ta bere lagunak ekiñean ipiñi ditun zergatia.

Izugarrizko jeikia eman diote on*dartzari*, ta gure erria anbeste jantzitzen duten zuaizti eder eta ibili toki zabalai. Eta ez au bakarrik, baita astindu ederra ere oraingo aldian itxas-bazterretan sortu dan larrugorrikeri ta nabarmenkeriai ere.

Ondartzan... tira, alde guzietako gaitza dala-ta... aldan bestean eliduaz...

*Baña ondartzatik kanpora?* Ez! ori ez! Auxe da gure alkate jaunak gogor esan duana bera agindua bete-arazten lanik asko ba'du ere. Eta gauz onek, orain-oraintxe gure.

Errian gertatutako edeski edo «anecdota» bat esangarri daukat:

Igaro dan igande eguerdi artean, gizon debatar bat zijoan zuaiztian egurazten edo «pasiatzen Aurrez-aurre ikusi du gizonezko gazte bat, Doidoi zerbait estalduta beste gabe Larrugorririk esate baterako, lotsagabe. Gizonak eraso zion:

—Aizu gazte: ez al dakizu orrela bildotzik ondartzatik kanpora ibiltzea gure errian galerazoa dagonik?

Gazteak lotsagabe begitze zatar bat egiñaz, erantzun zion:

—Bai; badakit Deba zibilizatu gabeko erri atzeratu bat dala. Baña esan gizon: Zergatik erri ontan ondartzatik kanpora ezin leike ibilli norberak nai duan bezela jantzita edo jantzi gabe?

Gizonak patxara osoan erantzun zion:

—Iñola ere gazte, zu atzera unibersidadean ikasia...

—Ezetz? Jakin bear dezu gizon, Salamanka'ko ikaslea naizela.

—A bai?... Ortaz, aurkestu zaite



Salamankako Unibersidadean orain zauden tankeraz, eta an irakatsiko dizute zibilizazioa zer dan.

Mutill eroa mar-mar burua beeratuta ondartzara biurtu zan.

TENE


## Irigarre

AUTOMOBILLEN TXAPA-LAN GUZTIAK-PINTAKETAK ERE EGITEN DITUGU. — KONPONTZEAK ETA BESTE EDOZER LAN-ERRIKO PESTAK DITUGULA-TA

ZORION - AGURRA GUZIOI

Astilleros, 3

Urrutizkiña: 601 062

DEBA (Gipuzkoa)

## GARBI

DROGATEGIA-DENDA AU ESKEINGARRI EDERREZ ONDO ORNITUZ DAGO — USAI GOZOTAN AUKERA ONA ERRIKO JAIETAN GOGOAN IZAN

Portu kalea

Urrutizkiña: 601 060

DEBA (Gipuzkoa)

## ALEJO

ELEKTRO-ETXERAKOAK, ESKEINGARRIETAN, AUKERA ONTZI TA FERRETERIA —BURNIGAILLUAK—

ONGI ETORRIAK ZAITEZTE GURE ERRIRA!

D E B A (Gipuzkoa)

## BURU - ZURI

JATETXE TA KAFETXE EZAGUNA

ARRATSALDEKO JAKI ONENAK-NOIZ-NAIRAKO MOKAU GOXOAK

Lertsundi kalea, 27 Urrutizkiña: 601 026

D E B A (Gipuzkoa)

## Hotel MONREAL

JOSE EGAÑA ERAÑA

RESTAURANTA ETA KALLETXEA — ERRIKO JAIETAN GURE AGURRA!

Urrutizkiñak: 601 244 - 601 245

D E B A (Gipuzkoa)

## Dolores Urain

JAKI TA EDARI DENDA. AUKERA AUNDIAREKIN. NAI BEZELAKO IGALIAK DENDA ONTAN ARKITUKO DITUZU. ERRIKO ERBESTEKO GUZIEI, GURE ONGIETORRIA PESTA ABETAN!

Lertsundi kalea, 19 Urrutizkiña: 601 030

D E B A (Gipuzkoa)

## Patxi Aizpurua (Olabe)

G A R A J E A

GUZITARAKO LANAK EGITEN DITU — AUTOMOBILLETZAKO GORDELEKUA — «SANDROKE» JAI ONAK OPA DIZKIEGU EZAGUN GUZIEI

Urrutizkiña 601 102 D E B A (Gipuzkoa)

## Arakistain Arategia

ARAGI TA ESTEKIETAN BERDIÑIK EZ DUAN ETXEA

ERRIKO JAIETAN ONDO JAN NAI BA-DEZU, ELDU ETXE ONTARA

Lertsundi, 35 Urrutizkiña 601 026

D E B A (Gipuzkoa)

## LABATAI

KAFE - ETXEA, GOSARIAK, ASKARIAK, MOKAUAK GELDOKI AURREAN

Etxe onek bere bezero guziei jai alaiak opa dizkie

Urrutizkiña: 601 227 D E B A (Gipuzkoa)

## LETE'TAR JUAN JOSE

EGUR-ZULAKETAN, NAIZ MAKIÑA EDO ESKUZ, ARKITUKO DITUZUN ERREMIENTARIK BIKAÑENAK

«YON» dute izena ta Deba'n egiñak dira

D E B A (Gipuzkoa)